



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2022ko apirilaren 26koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO IRAKASLE AGREGATUEN PLAZAK BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

2022ko martxoaren 2ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko irakasle agregatuen plazak betetzeko (2022ko martxoaren 15eko EHAA), eta amaituta onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea (deialdiko 4.1. oinarrian zehaztutakoa), errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Irakasle eta Ikertzaileen Ataleko iragarki oholean eta unibertsitatearen web orrian ere argitaratuko da (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitara ematea erabaki honen eranskin moduan agertzen den lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko Errektoreari, hilabeteko epearen barruan zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa ez bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2022ko apirilaren 26koa.

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2021eko urtarrilaren 28koa, errektorearena; otsailaren 12ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

30628936C  
FEDERICO  
RECART (R:  
Q4818001B)

Firmado digitalmente por  
30628936C FEDERICO  
RECART (R: Q4818001B)  
Fecha: 2022.04.26 08:42:57  
+02'00'

Izpta.: Federico Recart Barañano





Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

## **ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:**

**Lanpostuaren zenbakia: 1. Kodea: AGVC6L1- D00094-1.** Kategoria: Irakasle agregatua (lotutako lanpostua). Jakintza arloa: Obstetrizia eta Ginekologia. Medikuntza Espezialitatea: Obstetrizia eta Ginekologia. Saila: Medikuntza eta Kirurgia Espezialitateak. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Basurtuko Unibertsitate ospitalea). Hizkuntz eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: osoa. Eman beharreko gaiak: «Obstetrizia eta Ginekologia» eta «Gidaritzapeko Praktika Txandakatuak».

### ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: AMPARO VILLASANTE MORAN  
NAN: \*\*\*8609\*\*

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez

**Lanpostuaren zenbakia: 2. Kodea: AGVP6L1- D00094-1.** Kategoria: Irakasle agregatua (lotutako lanpostua). Jakintza arloa: Obstetrizia eta Ginekologia. Medikuntza Espezialitatea: Obstetrizia eta Ginekologia. Saila: Medikuntza eta Kirurgia Espezialitateak. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Gurutzetako Unibertsitate ospitalea). Hizkuntz eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: osoa. Eman beharreko gaiak: «Obstetrizia eta Ginekologia» eta «Gidaritzapeko Praktika Txandakatuak».

### ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: TXANTON MARTINEZ-ASTORQUIZA ORTIZ DE ZARATE  
NAN: \*\*\*3131\*\*

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez

**Lanpostuaren zenbakia: 3. Kodea: AGC8L1- D00145-43.** Kategoria: Irakasle agregatua. Jakintza arloa: Ingurumen Jarraituen Mekanika eta Egituren Teoria. Saila: Ingeniaritza Mekanikoa. Ikastegia: Bilboko Ingeniaritza Eskola. Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: osoa. Eman beharreko gaiak: «Lurren Ingeniaritza eta Morfologia».

### ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: OLATZ OYARZABAL DE CELIS  
NAN: \*\*\*8607\*\*

Izena eta deiturak: AMAIA SANTAMARIA LEON



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAN: \*\*\*4901\*\*

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez

